

AKORDIOA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREAREN 2018ko AZAROAREN 2ko ERABAKIAN (EHAA, 225. zk, 2018ko azaroaren 22koa) ARGITARATUTAKO OINARRI OROKOR ETA ESPEZIFIKOEN ARABERA III. SAILKAPEN TALDEKO (Sailkapen profesionala: UPV/EHUko teknikari espezialista, Espezialitatea: Kimika) LAN KONTRATUDUN LANGILE FINKOAK HAUTATZEKO PROZESUAREN EPAIMAHAIARENA.

Honen bidez, argitaratutako galderen zerrendetan sortutako zalantzen, akatsen eta desadostasunen inguruan jasotako idatzien gaineko erabakia hartuko dugu, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen zerbitzuan aritzeko langile finkoak hartzeko hautapen prozesuetarako oinarri orokorrak argitaratzea agindu zuen Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2018ko azaroaren 2ko ERABAKIAK emandako eskumenen babesean; hautapen prozesu horiek, hain zuzen, administrazio eta zerbitzuetako lan kontratudun langileen 2016. eta 2017. urteetako enplegu eskaintza (EHAA, 225. zk., 2018ko azaroaren 22a) onartzeko Gobernu Kontseiluak 2016ko uztailaren 7an eta 2017ko abenduaren 14an hartutako akordioetatik eratorri ziren.

Era berean, azterketaren nondik norakoei buruzko galderak jaso ditugu.

Horiek guztiak aztertu ondoren, eta Deialdiaren Oinarri Orokorren zazpigarren, zortzigarren eta hamabigarren puntuan eta Oinarri Espezifikoen hirugarren puntuan (biak ere UPV/EHUko Errektorearen 2018ko azaroaren 2ko erabakietan jasotakoak) aurreikusitakoa kontuan hartuta, III. sailkapen taldeko (Kategoria profesionala: Teknikari espezialista, Espezialitatea: kimika) lan kontratudun langile finkoak hartzeko hautapen prozesuaren epaimahaiak honako hau erabaki du:

Erabakiak:

LEHENA.- Galderen zerrendan hautemandako akats formalak (*gramatika, tipografia, osaketa, numerazioa, letra formatua, azpiindizeak*) zuzentzea. Epaimahaiak hala erabakita, honako zuzenketa hauek egin dira:

- **2. galdera:** akatsa (Soxlet) zuzendu, eta **Soxleth** jarri da.
- **449. galdera:** akatsa (Carbón) zuzendu, eta **Carbono** jarri da.
- **345. galdera:** azpiindizeak (H₂, O₂, H₂O) zuzendu, eta honela **H₂,O₂, H₂O** geratu da.
- **277. galdera:** akatsa (Sody) zuzendu, eta **Soddy** jarri da.

- **165. galdera:** Aluminioaren azpiindizea zuzendu da
- **75. galdera:** goi indizea (O_2^2) zuzendu, eta O^{2+}_2 jarri da.

BIGARRENA.- Jakitera ematea hautagai bakoitzak azterketa egiteko unean aukeratu ahal izango duela bai azterketa egiteko hizkuntza, bai egin beharreko ariketa praktiko mota. Epaimahaiak berak aktan jasoko du hori guztia, gero UPV/EHUko Gerentziako langileen zerbitzuetara bidali eta bertan jasota gera dadin.

HIRUGARRENA.- Jakitera ematea oposizioaldian 3. oinarri espezifikoan agindutako ariketa egiteko soil-soilik material eta dokumentazio hau erabili ahal izango dela:

- Test erako ariketak egiteko:

Kalkulagailu bat soilik, sarean datuen konexioa eduki gabe.

- Ez dira onartuko:

Telefono mugikorra mahai gainean, ezta itzalita ere.

Telefono mugikorrera konektatutako smartwatch edo ordularia.

- Oinarri espezifikoan 3.1.2 puntuan adierazitako ariketa praktikoa egiteari begira, epaimahaiak gutxienez proposatuko dituen 5 kasu praktikoetako bat ebatzea hautatzen duten pertsonak honako material eta dokumentazio hau erabili ahal izango dute:

Apunteak eta testuliburu bat.

Kalkulagailu bat soilik, sarean datuen konexioa eduki gabe.

- Ez dira onartuko:

Telefono mugikorra mahai gainean, ezta itzalita ere.

Telefono mugikorrera konektatutako smartwatch edo ordularia.

Leioa, 2019ko urriaren 23a.

Epaimahaiburua

José R. Cuesta Graña jn.

Idazkaria

Juan M^a Apaolaza Estensoro